

5.

NORTASUNAREN ETA TENPERAMENTUAREN EBALUAZIOA HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN

5. NORTASUNAREN ETA TENPERAMENTUAREN EBALUAZIOA

HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN

Autore batzuentzat, garrantzizkoa da temperamentuaren eta nortasunaren konstruktuen arteko bereizkuntza (Strelau, 1987). Temperamentua da jaiotzetik daukaguna, eta nortasunaren oinarri biologikoei lotuta dago. Nortasuna, aldiz, hauxe da: garapenean zehar temperamentuko oinarrizko ezaugarriak ingurutik eta gizartetik, baina baita ere arlo kognitibo eta ikaskuntzatik, datozen faktoreekin egindako elkarreraginaren ondorioa.

Temperamentuaren ebaluazioa

Thomas-ek eta Chess-ek (1977) temperamentua honela definitzen zuten: lehenengo haurtzaroan portaera-estiloetan agertzen diren ezberdintasun indibidualak.

Beste definizio batzuk ere eman dira. Komunean daukatena hauxe da:

- Lehenengo haurtzaroan agertzen dira.

- Konstituzioarekin eta jaraunspenarekin (herentziarekin) harremanak dauzkate.
- Denboran zehar mantentzen dira.
- Inguruak eragina izan dezake.

Haur-tenperamentuaren egitura

Thomas-ek, Chess-ek eta Bich-ek (1968) haur-tenperamentuaren egitura bat proposatu zuten. **New York Longitudinal Study-n (NYLS)** egindako ikerketen arabera, bederatzi dimentsio agertzen dira tenperamentuaren barruan:

1. **Aktibitatea.** Portaeraren eduki motorra aztertzen du, ezezagun diren pertsonen aurreko erreakzioetan,
 - oihalen aldaketan,
 - janari berrien aurrean,
 - haurren motrizitatea, oro har, kontuan hartuta.
2. **Erregulartasuna.** Ordutegien erritmoa islatzen du
 - lo-esnatu zikloan,
 - jatean,
 - uzki-funtzioetan-
 - janari kopuruan.
3. **Hurbiltzea-urruntzea.** Estimulu edo pertsona berrien aurreko hasierako erantzuna.
4. **Egokitzapena.** Estimulu eta egoera berrietara egokitzeko ahalmena.

5. **Erreaktibitatea.** Erantzunaren intentsitatea islatzen du, hura positiboa ala negatiboa izan.
 - Zentzumen-estimuluen aurreko erantzuna: soinuak, argia...
 - Eragindako mugimenduak.
6. **Sentiberatasuna.** Estimulu batek haurraren erantzun bat eragiteko behar duen intentsitatea.
7. **Umorearen kalitatea.** Haurrak adierazten duen erantzun alai eta baikorren kopurua konparatzen du erantzun ezkorrekin.
8. **Arreta galtzea.** Gauzatzen ari diren ekintzei interferentzia egin diezaieketen estimulu berrien eragingarritasun-mailari dagokio.
9. **Aditasun-egonkortasuna.** Haurrak zenbat denboran mantendu dezakeen aktibitate bat (aditasuna) eta zein den aktibitate horretan zailtasunen aurrean duen erresistentzia-maila (egonkortasuna).

Horren arabera, hiru haur mota bereizten zituzten: haur errazak, haur zailak eta erreakzio motelekoak. Taula honetan, haur mota hauetako bakoitzaren ezaugarriak agertzen dira, *New York Longitudinal Study*-n agertu zen ehunekoarekin batera:

HAUR MOTA	EZAUGARRIAK	NYLS LAGINKETAREN EHUNEKOA
errazak	baketsuak, umore onekoak, harreman errazekoak, egokitzen dira, erritmikoak	% 40
zailak	umore txarrekoak, erraz haserretzen dira, ez dira erraz egokitzen, aritmikoak	% 10
erreakzio motelekoak	aktibitate-maila baxua, harreman-maila baxua, ez dira egokitzen, erritmo aldakorrekoak, umore txarrekoak	

Haur-tenperamentuaren ebaluazioa

Hainbat test sortu dira haurren tenperamentua ebaluatzeko. Lehenengoa *New York Longitudinal Study*-n erabili zen elkarrizketa dugu, eta horren inguruan galdesortak ere sortu ziren, ondoan deskribatzen ditugunak:

◆ *New York Longitudinal Study Parent Interview* (Thomas, Birch eta Chess, 1963).

Item kopuru aldakorra zuen.

Bederatzi multzotan bilduta, Thomas-ek eta Chess-ek deskribatutako 9 kategoriak ebaluatzen zituen 3-5 hilabeteko haurrengan. Lehenengoa izan zen, eta orain erabiltzen diren beste tresna batzuen abiapuntua da.

◆ *Infant Temperament Questionnaire* (ITT, 1970). Haur-tenperamentua ebaluatzeko galdesorta bat da. Egilea W.B. Carey da. 70 galderaz osaturik dago, eta *New York Longitudinal Study*-n agertutako 9 kategorien arabera sailkatuta dago. Aplikazio-adina 3 hilabete eta erditik 8 hilabete eta erdira bitartekoa da.

◆ *Revised Infant Temperament Questionnaire* (RITQ, 1978). Haur-tenperamentua ebaluatzeko galdesorta bat da. Carey eta McDevitt dira egileak; 95 item dauzka, eta bakoitzak sei erantzun-aukera dauzka. *New York Longitudinal Study*-n oinarria duten 9 tenperamentu-ezaugarri dira ebaluazioaren helburua. 4-8 hilabeteko adinean erabiltzen da. Haurrak lau multzotan sailkatzen ditu:

- errazak,
- zailak,
- erreakzio motelekoak,
- tartekoak.

Test horiek guztiak eta haien ezaugarriak ikus ditzakezue taula honetan.

TENPERAMENTUA EBALUATZEKO TRESNAK

TRESNA-URTEA	IZENA	TRESNA MOTA	EGILEAK	EGITURA	EBALUATZEN DU	APLIKAZIO-ADINA	ADIERAZPENAK
NYLS-1963	New York Longitudinal Study parent interview	Elkarrizketa	Thomas, Birch eta Chess	Item kopuru aldakorra, 9 multzotan bildua	Thomas eta Chess-ek deskribatutako 9 kategoriak	3-5 hilabete	Lehenengoa izan zen. Orain erabiltzen diren beste tresna batzuen abiapuntua
ITT-1970	Infant Temperament Questionnaire	Galdesorta	W.B. Carey	70 galdera, NYLSen 9 kategorien arabera sailkatuak	NYLSen 9 kategoriak	3 hilabete eta erditik 8 hilabete eta erdi arte	Lehenengoetako bat.
RITQ-1978	Revised Infant Temperament Questionnaire	Galdesorta	Carey eta Devitt	95 item, sei erantzun aukerakoak	NYLSen oinarria duten 9 tenperamentu-ezaugarri	4-8 hilabete	Haurrak 4 multzotan sailkatzen ditu: <ul style="list-style-type: none"> • errazak • zailak • erreakzio motelekoak • tartekoak

Haurren eta nerabeen nortasunaren ebaluazioa

Haurren eta nerabeen nortasunaren ebaluazioan hainbat tresna erabiltzen dira, nortasunari buruzko hainbat ikuspegiren arabera.

Haur eta nerabeen nortasuna tresna hauen bidez ebalua dezakegu:

- galdesorten, eskalen eta inbentarioen bidez,
- gurasoei pasatutako galdesorten, eskalen eta inbentarioen bidez,
- teknika proiektiboen bidez.

Galdesortak, eskalak eta inbentarioak haur eta nerabeen nortasunaren ebaluazioan

◆ ***Early School Personality Questionnaire (ESPQ)*** edo ***Eskola hasierako nortasunari buruzko galdesorta*** (Coan eta Cattell, 1966, 1981).

Nortasuna era faktorial batean ebaluatzen du Cattell-en ereduaren arabera (16 PF-ren moduan). 140 item dauzka, eta bi alditan pasa daiteke, haurra ez nekatzeko. 6 urtetik 8 urtera bitartean erabiltzen da; 13 eskala faktorial dauzka, eta bi bigarren mailakoak.

◆ *Children's Personality Questionnaire (CPQ)* edo *Haur nortasunari buruzko galdesorta* (Porter eta Cattell, 1979, 1982).

Aurrekoaren antzekoa da, baina 8 urtetik 12 urtera bitartean erabiltzen da. 14 eskala faktorial dauzka, eta 4, bigarren mailakoak. Erantzuteko 40-60 minutu behar dira.

◆ *High School Personality Questionnaire (HSPQ)* edo *Nerabeentzako nortasun-galdesorta* (Cattell eta M.D. Cattell, 1968, Cattell, Beloff eta Coan, 1981).

Cattell-en nortasunari buruzko teoriaren arabera ebaluatzen ditu nortasun-dimentsioak. 12 urtetik 18 urtera bitartean erabiltzen da. Erantzuteko 45-60 minutu behar dira.

14 eskala faktorial dauzka, eta 4, bigarren mailakoak.

HSPQ: FITXA TEKNIKOA

IZENA: HSPQ *High School Personality Questionnaire* (HSPQ) edo *Nerabeentzako Nortasun Galdesorta*.

AUTOREAK: Cattell eta Cattell, 1968; Cattell, Beloff eta Coan, 1982.

ADMINISTRAZIOA: bakarka eta taldeka

DENBORA: 45-60 minutu

APLIKAZIOA: 12-18 urte bitarteko nerabeei.

EBALUATZEN DU: nortasunaren lehen mailako 14 ezaugarri, eta bigarren mailako 4.

TIPIFIKAZIOA: ikasleen baremoak erabiltzen dira (OHoko 8. mailari dagozkionak)

Test hau, lehen aldiz, 1968an argitaratu zen, High School Personality izenarekin. Gerora, berrikusia izan zen 1978an. Gaztelaniazko egokitzapena TEA argitaletxeak egin zuen 1982an, eta berrikusia izan zen 1989tik 1995etik bitartean. HSPQk neurtzen ditu ikerketa faktorialaren bidez identifikatutako, isolatutako eta funtzionalki independenteak diren nortasunaren 13 eskala eta adimen-eskala bat.

HSPQ faktoreen deskripzioa

A faktorea	
Barnerakoa, aldendua, kritikoa	Kanporakoa, maitekorra, lasaia, parte-hartzailea
Puntuazio altua duen subjektua irekitzat eta gizartekoitzat hartuko da, eta puntuazio baxua lortzen duena hotzagotzat eta aldenduagotzat joko da. Nerabezaroaren garaian, bi ezaugarri horien arteko aldea nabariagoa da.	
B faktorea	
Inteligentzia-maila baxua, pentsamendu konkretua	Inteligentzia-maila altua, pentsamendu abstraktua
Puntuazio altuak adierazten du nerabe oso argia izango dela, eta ideiak ulertzen eta ikasten azkarra izango dela; kontrara, puntuazio baxuak, subjektua ikasten eta ulertzen motela izango dela.	
C faktorea	
Sentimenduek eragin handia dute; emozionalki ezegonkorra da. Erraz asaldatzen da.	Emozionalki egonkorra da, lasaia, heldua, errealitateari aurre egiten diona
Puntuazio altua lortzen duen nerabeak lasaitasun erlatiboa erakusten du; egonkorra dirudi, eta sozialki heldua da, besteekin harremanetan jartzeko gai. Aurkako muturrean kokatzen denak, berriz, frustrazioarekiko tolerantzia gutxiago erakusten du, eta kontrol emozionala sarriago galduko du.	
D faktorea	
Patxadatsua, adierazkortasun gutxikoa, aktibazio gutxikoa, "gatzik gabea".	Kilikabera, pazientziarik gabea, abegitsua, hiperaktiboa, inhibitugabea.
Probokazio txiki baten aurrean asaldura erakusteko joera neurtzen du eskala honek, bai eta estimuluekiko hiperaktibazioa. Puntuazio baxuak nerabe emozionalki baketsua deskribatzen du.	
E faktorea	
Menpekota, esanekoa, otzana, moldakorra, erraz amore ematen duena.	Dominatzailea, dogmatikoa, erasokorra, tematia.
E+ den subjektua aktiboa, dogmatikoa eta erasokorra izango da. Beste muturrean dagoen nerabea, berriz, otzanago agertuko da. E+ subjektuek arazoak izaten dituzte beren jokaera dela eta, baina haien dogmatismoa eraikitzaileago den adierazpide batera bideratuz gero, nerabearen egokitzapena egokiagoa izan daiteke.	
F faktorea	
Neurrizkoa, zuhurra, serioa, uzkurra	Sutsua, erraz fidatzen dena, zuhurtziarik gabea edo burugabea
F faktorean puntuazio altua duena sutsua, optimista eta seguru agertu ohi da. Puntuazio baxua duena serioagoa da, eta bere burua ezesteko joera erakusten du. Ikerketen arabera, F+ diren nerabeak erlatiboki maitekor eta seguru diren familietan heziak izan dira; F-, aldiz, maitasun gutxi dagoen familietan.	
G faktorea	
Arduragabea, araeukiko arreta gutxi, bere hobe beharrez jokatzeko duena, superego ahulekoa.	Kontzientea, saiatua, moralista, zentzuduna, araei atxikia, superego indartsukoa.
Badirudi faktore horrek subjektuak helduen balioak zein neurritan integratu dituen adierazten duela. Garai honetan garrantzi handia hartzen du subjektuak bere eskola-errendimendu nola balioesten duen.	

H faktorea	
Inhibitua, lotsatia, mehatxuarekiko sentibera.	Ekintzailea, sozialki ausarta, inhibitugabea, espontanea.
A faktorearekin batera estrabertsio eta introbertsioaren osagaietako bat da faktore hau, eta hainbat gizartekoitasun gradutan adierazten da. A+ lagunkoia den bezala —hau da, pertsonekiko erantzun emozional positiboa du—, H+ diren subjektuak besteekin modu aske eta ausartean jartzen dira harremanetan. H- sentiberagoa da; atzerantz egingo du, eta mehatxuetatik eta gehiegizko estimulazio sozialetik aldentzen da.	
I faktorea	
Sentiberatasun gogorrekoa, ilusioak baztertzeko joeraduna, errealista, soilik bere buruaz fidatzen dena.	Sentiberatasun ahulekoa, txundigarria, menpekoa, babestuegia.
I+ diren subjektuek agertuko dute gehiegizko babesak bultzatutako sentiberatasun tipo bat, eta I- direnek baino dependentzia-maila altuago bat.	
J faktorea	
Segurua, taldeko jarduerak atsegin dituen, aktiboa, indartsua.	Zalantzia, erabakiak hartzeko zailtasunak dituen, erreserbatua, individualista, taldean aritzea gustatzen ez zaiona.
Faktore honetan puntuazio altua duten nerabeak individualistak dira; motrizitateari dagokionez, erreprimituak; besteekin kritiko azaltzen dira, eta besteak gutxiesteko joera dute.	
O faktorea	
Barea, trankila, konfiantzaduna, bere buruarengana segurtasuna daukana.	Erruduntasun-joera, erru-sentimenduduna, segurtasunik gabea, arduratua, urduria, bere burua mesprezitzen duena.
Helduetan, pertsona neurotikoak eta normalak hobekien bereizten dituen faktorea da. O+ subjektuen errudun sentitzeko joeraren bereizgarri dira suminkortasuna, antsietatea edota depresioa, egoeraren arabera.	
Q2 faktorea	
Gizartekoia; laguntzaile ona, eta taldera erraz egokitzen dena.	Buruaskia, erabaki propioak nahiago dituen, baliabidez bete.
Introbertsio-estrabertsioa bigarren mailako faktorearen osagai nagusietariko bat da. Q2+ den pertsonak ez du zertan bere erlazioetan menperatzailea izan; ez dauka besteen baiezkoren eta sostenguen beharrik. Q2- subjektuek, berriz, taldekideen sostengua behar dute.	
Q3 faktorea	
Ez dago hain integratua; erlaxatua dago; bere beharrei jarraitzen die; ez diote ardura gizarteko arauak.	Integratua, sozialki zehatza, diziplinatua, konpultsiboa, bere irudiaren kontrola duena.
Helduetan, Q3+ lortzen duten pertsonek beren emozioen eta jokaeraren gaineko kontrol handia izaten dute. Q3- diren pertsonak arduragabeak izan ohi dira eskaera sozialen eta desiren kontrolari dagokionez.	
Q4 faktorea	
Erlaxatua, lasaia, gogaikarria, sosegatua, frustrazioerik gabea.	Tentsua, frustratua, presionatua, estimulu gehiegikoa, geldirik egon ezin dena.
Q4 + nerabeak frustraturik eta samindurik edota umore txarrez agertzen dira. Q4- nerabea, berriz, erlaxatua dago, eta jarrera gizartekoia dauka.	

Galdesorta hau taldeka pasatzeko diseinatu zen, eta 20-30 subjektuko gela batean pasatzeko egokia da. Ez da gomendagarria pertsona kopuru handiago bati pasatzea, testa egiteko giro egokia mantentzea zailtzen delako.

Zuzenketa eta interpretazioa

Galdesorta pasatu ondoren, eskala bakoitzeko puntuazio zuzenak (A eskalatik Q4-rainokoak) kalkulatu dira, horretarako zuzenketa-txantiloia baliatuz.

Puntuazio zuzenek esanahi psikologikoa izateko, *dekatipoetara* aldatu behar dira. Dekatipoak 10 puntuko eskalan banatzen dira; 5,5eko batezbestekoa dute, eta 2 puntuko desbideratze tipikoa. Tipifikazio horretan, adina eta sexua aldagai diferentzialtzat hartu zirenez, horien arabera baremoak ere sortu ziren. Baremoetan oinarriturik pasatuko dira puntuazio zuzenak dekatipoetara, subjektuaren adina eta sexua kontuan harturik.

Interpretazioa egitean, bigarren mailako eskalak interpretatuz hastea gomendatzen da, horiek duten fidagarritasun- eta baliozkotasun-mailak altuagoak direlako, eta jarraian lehen mailakoak interpretatzea.

Bigarren mailako faktoreak

Q1 FAKTOREA	
<p>Antsietate baxua</p> <p>Puntuazio baxuko subjektuek bizitza gozagarritzat dauka, eta beretzat garrantzitsua dena lortzen du. puntuazio oso baxuak eginkizun zailletarako motibazio falta adieraz dezake.</p>	<p>Antsietate altua</p> <p>Puntuazio altua lortzen dutenak antsietatez betetako pertsonak dira; ez dute zertan neurotikoak izan; antsietatea bizitzako une horretan sortua izan daiteke. Hala ere, desorekaren bat adieraz dezake, bizitzako urgentziei erantzuteko edota lortu nahi dituen helburuak lortzeko gaitasun ezagatik. Muturreko kasuetan, antolakuntza ezaren eta asaldura fisiologikoen adierazle bat da.</p>
Q2 FAKTOREA	
<p>Introbertsioa</p> <p>Puntuazio baxuak pertsona erreserbatuak, buruaskiak eta harreman pertsonaletarako inhibitituak adierazten ditu.</p>	<p>Estrobertsioa</p> <p>Puntuazio altua duen subjektua sozialki trebea eta inhibitugabea da; harreman pertsonalak izateko eta mantentzeko gai.</p>
Q3 FAKTOREA	
<p>Lasaitasuna</p> <p>Puntuazio baxuak adierazten du pertsona dela sentiberatasun apalekoa, txundigarria, moldakorra, menpekoa, neurritzakoa, zuhurra, sentimentala, eta adierazteko gaitasun urrikoa.</p>	<p>Kilikaberatasuna/gogortasuna</p> <p>Puntuazio altuak hauek seinalatzen ditu: hiperaktiboak; sentiberatasun handikoak; erasokorrak; sutsuak; kalkulatzailak eta zorrotzak; taldeko jarduerak gogoko dituen arren, araei jaramonik egiten ez dietenak, eta beren beharrak ase baino egiten ez duten pertsonak.</p>
Q4 FAKTOREA	
<p>Dependentzia</p> <p>Q4 faktorean puntuazio baxua dutenak menpekoak dira, eta taldearen arabera mugitzen direnak. Besteen sostengua ezinbestekoa daukate, eta beren jokaera ekarpen hori lortzeko moldatuko du.</p>	<p>Independentzia</p> <p>Puntuazio altua lortzen dutenek joera izango dute erasokorrak, independenteak, ausartak, ekintzailak eta mingarriak izateko.</p>

HSPQko galdera batzuk

3. Tontakeriaren bat egiten duzunean, lurrak zu irenstea nahi izateko bezain gaizki sentitzen al zara? (Bai / Ez dakit / Ez)

13. Zer izan nahiago duzu?

- a. Bidaia asko egiten duen telebistako aktorea.
- b. Ez nago seguru.
- c. Medikua.

140. Batzuetan arazo txikiek urduri jartzen zaituzte, nahiz eta jakin garrantzitsuak ez direla?

◆ *Junior Eysenck Personality Questionnaire (J-EPQ)* edo *Gazteentzako Eysenck nortasun-galdesorta* (Eysenck eta Eysenck, 1975).

Eysenck-en teoriaren arabera ebaluatzen ditu nortasun-dimentsioak. 7 urtetik 15 urtera bitartean erabil daiteke, eta 20-30 minutu behar dira testa pasatzeko.

Lau eskala ditu:

- Introbertsioa / Estrabertsioa
- Neurotizismoa / Oreka emozionala
- Psikotizismoa (izaera gogorra/malgua). 1952. urtean Eysenck-ek hirugarren dimentsio baten existentziaren hipotesia plazaratu zuen. Dimentsio horrek “psikotizismo” izena hartu zuen.
- Simulazioa (L)

FITXA TEKNIKOA

JATORRIZKO IZENA: “Eysenck Personality Questionnaire – Junior (EPQ-J) eta Adult (EPQ-A)”.

EGILEAK: H. J. Eysenck eta S. B. G. Eysenck (1975).

JATORRIA: Hodder and Stoughton Educational, Londres, Britainia Handia.

GAZTELANIARAKO EGOKITZAPENA: TEA argitalpenak (EPQ-J) eta V. Escolar (EPQ-A).

ADMINISTRAZIOA: banaka eta taldean.

IRAUPENA: aldakorra: 20 minutu inguru (irakurmenaren arabera, EPQ-J), eta 20-30 minutu (EPQ-A).

APLIKAZIO-ADINA: zortzi urtetik hamabost urtera bitartean (EPQ-J) eta hamasei urtetik aurrera (EPQ-A).

ESANAHIA: nortasunaren oinarrizko hiru ezaugarrien ebaluazioa (neurotizismoarena, estrabertsioarena eta psikotizismo edo gogortasunarena) eta egiazaletasuna.

TIPIFIKAZIOA: ikasleen eta helduen baremoak.

Aplikaziorako argibideak galdesortaren lehenengo orrialdean daude, praktikako adibide pare batez osatuak, nola erantzun behar den esplikatzeko eta subjektuen kolaborazioa lortzeko. Aplikazioa taldekoa denean, aztertzaileak argibideak ozenki irakurriko ditu,

subjektuek jarraitzen duten bitartean. Aplikazioa banakakoa bada, subjektuak isilean irakur ditzake, aztertzailea bertan dagoela edozein zalantzari erantzuteko. Argibideak ez dira luzatu edo aldatu behar.

Jasotzerako garaian, galdera guztiei erantzuna eman zaien baieztatu behar da, eta, hutsunerik balego, subjektuei eskatuko zaie erantzuten saiatzeko.

EPQ galdesortan emandako erantzunak zuzenketa-ereduaren laguntzaz puntuatzen eta zuzentzen dira. Azken pauso gisa, interpretatu egiten dira, teoriaren arabera.

Testak ezaugarri psikometriko egokiak ditu, eta oso erabilia da, bai eskolan eta bai klinikoki, Europan bereziki. Kulturen arteko konparazio asko egin dira test hau erabiliaz.

EPQ-Jko galdera batzuk

- 6. Erraz aspertzen al zara?
- 13. Oso alaia eta adoretsua al zara?
- 17. Lagun asko daukazu?
- 22. Bizitza tristea dela maiz pentsatzen al duzu?
- 31. Zerbait gaizki esan edo egin duzunean, beti eskatu al duzu barkamena?
- 52. Beldur pixka bat ematen duten gauzak egitea gustatzen al zaizu?

◆ *Harter Pictorial Scale of Perceived Competence and Social Acceptance for Young Children* edo *Hautemandako Gaitasuna eta Onarpen Soziala Ebaluatzeko Haur Txikientzako Eskala Grafikoa* (Harter eta Pike, 1984).

4 urtetik 7 urtera bitartean erabiltzeko diseinatu zen. Orri bakoitzean bi marrazki daude, batean haurrak sozialki onartua dagoen zentzuan portatzen da, eta bestean ez. Haurrari galdetzen zaio bere portaerak norenaren antza duen.

Nork bere gaitasuna nola hautematen duen lau azpi-eskalatan ebaluatzen da:

- gaitasun kognitiboa
- gaitasun fisikoa
- lagunen onarpena
- amaren onarpena

Tresna honen desabantaila bakarra da esperimentazioan dagoela. Horregatik datu psikometrikoak falta dira.

◆ *Distance from the Prototype* (DISPRO) edo *Prototipoen bidez egindako konparazioa* (Broughton, Boyes. eta Mitchell, 1993).

Wiggins-en eredutik hartutako nortasun-ezaugarriak prototipoen bidez neurtu nahi dituzte test honetan. Test hau 7 urte baino gutxiago duten haurrentzat diseinatu da. Istorio baten protagonistaren eta haurraren arteko ezberdintasunak markatu behar dira. Aplikatzen erraza da, eta egin behar den lana ez da mehatxagarria gertatzen haurrentzat. Ezaugarri psikometriko onak dauzka.

Test hauei buruzko informazioaren laburpena ondorengo tauletan ikus daiteke:

TRESNA-URTEA-EGILEAK	EBALUATZEN DU	APLIKAZIO-ADINA	TRESNAREN EGITURA	ABANTAILAK	DESABANTAILAK
DISPRO Distance from the Prototype (Broughton et al., 1993)	Nortasun-ezaugarriak, Wiggins-en ereditik hartuak eta prototipoen bidez neurtuak	7 urtetik behera	Istorio baten protagonistaren eta haurraren arteko ezberdintasunak markatu behar dira	Aplikatzeko erraza da, eta egin beharra ez da mehatxagarria haurrentzat	
Harter Pictorial Scale of Perceived Competence and Social Acceptance for Young Children (Harter eta Pike, 1984)	Gaitasunaren autoperzeptzioa lau azpieskalatan: <ul style="list-style-type: none"> ▪ gaitasun kognitiboa ▪ gaitasun fisikoa ▪ lagunen onarpena ▪ amaren onarpena 	4-7 urte	Orri bakoitzean bi marrazki daude: batean, haurra sozialki onartua dagoen bezala portatzen da, eta bestean, ez. Haurrari galdetzen zaio bere portaera norenaren antza duen.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Marrazkien bidez aurkeztea ▪ Bi marrazkiren artean aukera egin ahal izatea Horren bidez haurren arazo kognitiboak gutxitu egiten dituzte, eta neurriaren fidagarritasuna eta baliozkotasuna handitu.	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Probaldian dago ▪ Datu psikometrikoen falta
ESPD Early School Personality Questionnaire (Coan eta Catell, 1966)	Nortasuna era faktorialean	6-8 urte 8-12 urte	13 eskala faktorial dauzka, 2 bigarren mailakoak 14 eskala faktorial dauzka, 4 bigarren mailakoak	Datu araukoak egokiak dira.	Puntuazioen interpretazioa ez dago ongi deskribatuta eskuliburuan.

TRESNA-URTEA-EGILEAK	EBALUATZEN DU	APLIKAZIO-ADINA	TRESNAREN EGITURA	ABANTAILAK	DESABANTAILAK
CPQ Children's Personality Questionnaire (Porter eta Catell, 1979)		Erantzuteko 40-60 minutu behar dira.		Gaztelaniarako egokitua (Porter eta Catell, 1982)	
HSPQ High School Personality Questionnaire (Catell eta Catell, 1978)	Nortasuna era faktorialean	12-18 urte Erantzuteko 45-60 minutu behar dira	14 eskala faktorial dauzka, 4 bigarren mailakoak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Psikometriaren aldetik, tresna sofistikatu da nerabeen ezberdintasun indibidualak ebaluatzeko ▪ Laginak zabalak eta adierazgarriak dira 	Puntuazioen interpretazioa ez dago ongi deskribatuta eskuliburuan
J.EPQ Junior Eysenck Personality Questionnaire (Eysenck eta Eysenck, 1975)	Eysenck-en teoriaren araberrako nortasun-dimentsioak	7-15 urte 20-30 minutu behar dira testa pasatzeko	Lau eskala ditu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Introbertsioa/Estrabertsioa ▪ Neurotizismoa/Oreka emozionala ▪ Psicotizismoa (izaera gogorra-malgua) ▪ Simulazioa (L) 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Test-birtest fidagarritasun egokia ▪ Ezaugarri psikometrikoen buruz lan asko argitaratu dira ▪ Hainbat kulturaren arteko konparazioak ▪ Oso erabilia eskola- eta klinika-mailan, Europan bereziki 	

Haur eta nerabeen nortasunaren ebaluazioa, gurasoei pasatutako galdesorta, eskala eta inbentarioen bidez

Askotan, haur eta nerabeen ebaluazioa egitean, gurasoak edo irakasleak informazio-iturri gisa erabiltzen dira. Eskuarki, arazo izaten diren portaerak ebaluatzeko eginak dira (Achenbach-en CBCL, Conners-en PTRS edo Wirt eta beste zenbaiten PIC bezala), eta horregatik 8. kapituluaren ikusiko ditugu. Adibide gisa, ondorengo taulan PIC testari buruzko informazioa eskaintzen dugu:

Nortasunaren ebaluazioa gurasoei pasatutako galdesorten, eskalen eta inbentarioen bidez

<i>TRESNA-URTEA-EGILEAK</i>	<i>EBALUATZEN DU</i>	<i>APLIKAZIO-ADINA</i>	<i>TRESNAREN EGITURA</i>	<i>ABANTAILAK</i>	<i>DESABANTAILAK</i>
PIC Personality Inventory for Children (Wirt eta beste, Minnesota, 1977; 1984)	Haurraren nortasuna irizpide enpirikoekin, MMPIn bezala	Amek erantzuten dute, edo haurraren inguruko beste pertsona batzuek.	600 item, 4 faktore-laburpen, 13 eduki kliniko dutenak, 3 kontrol-eskala	Ikerkuntza asko honi buruz Lagin arauzko egokia	Luzera: azken honetan saiatu dira laburtzen Zuzenketa konplexua (ordenagailuz egin daiteke) Luzea denez, ez dira ateratzen ondorioak tresnari buruz, eskalei buruz baizik Puntuazio altuekin ondorio ezegokiak atera daitezke, kontuan hartuta gurasoen erantzunak direla

Haur eta nerabeen nortasunaren ebaluazioa teknika proiektiboen bidez

Teknika proiektiboen ezaugarriak

Teknika proiektiboak eredu psikoanalitikoan erabilitako tresna nagusia izan dira urte askotan. Teknika proiektiboen ezaugarri orokorrak honako hauek dira:

- materialaren anbiguotasuna eta
- erantzuna emateko subjektuaren askatasuna.

Teoriaren arabera, teknika proiektibo guztiek erregresioa eragiten dute, hainbat mailatan. Anzieu-k (1981) sailkatu zituen test proiektiboak eragiten duten erregresio motaren arabera. Horrela, bi Test Proiektibo Mota bereizi zituen.

- *Test proiektibo gaikakoak.* TAT da test mota honen eredua. TAT testetan bezala, istorioak kontatu behar dira, edo marrazkiak egin, edo argazkiak interpretatu; hartarako, hizkuntza eta logika erabili behar dira, eta lehen-orainaren ordenari jarraitu behar zaio. Horregatik, *erregresio mugatua* eragiten dutela uste du Anzieu-k.
- *Test proiektibo egiturazkoak.* Rorschach da test mota honen eredua. Test horiek *erregresio sakonagoa* eragiten dute. Bertan eskaintzen dena espazio huts bat da, eta subjektua bertan kokatu behar da, hizkuntzaren aurreko garaietara eta horri lotuta dagoen problematikara eramanez.

Test proiektiboek ematen duten informazioa

Test proiektiboek subjektuaren dinamika psikikoari buruz ematen dute informazioa:

- Nia jorratzen dute.
- Subjektuaren egoeraz, inhibizio neurotikoz eta inbestimenduez informatzen dute.
- Defentsa mekanismoak aztertzen dituzte: noraino dauden sarturik; angustia jasateko subjektuak duen ahalmena; eta niak errealitatea hautamateko duen sendotasun eta zehaztasun-mailaz informatzen dute.

Test proiektiboen ezaugarri psikometrikoak

Test guztiek bete behar dituzten oinarrizko ezaugarri psikometrikoak dira Sentiberatasuna, Fidagarritasuna eta Baliozkotasuna.

Test proiektiboetan oinarrizko betebeharrak hauei buruzko ezberdintasun batzuk azpimarratuko ditugu lerro hauetan:

▲ Sentiberatasuna

- Irizpide psikometrikoen arabera, aldagai askeak (testak neurtzen duen objektuak) menpeko aldagaiarekiko (subjektuek testean izan duen jarduerarekiko) dituen aldaerak bilatzeko testak duen gaitasuna da.
- Test proiektiboetan sentiberatasunaren definizioa beste modu batean ulertzen da. Sentiberatasuna da nortasunaren ezaugarriak agertzeko testaren ahalmena, pertsonaren dinamika psikikoan duten garrantzia ikusirik. Horietan nortasuna osatzen duten ezaugarriak aztertutako nortasunean duten garrantziaren arabera banatzeko testak duen gaitasuna da sentiberatasuna. Testak sentiberatasun hori baduen ala ez egiaztatzeko, teoriarekiko koherente izanik, adinaren, gaixotasunaren edo aurre egin beharreko beste edozein egoeraren ondorioz nortasunean gertatzen diren aldaketa funtsezkoenak zenbateraino islatzen dituen aztertu beharko da.

▲ Fidagarritasuna

Fidagarritasuna neurriaren egonkortasuna da. Baina test proiektiboetan kontzeptu hori —Anzieuren arabera trebetasunen testetan funtsezkoa dena— test proiektiboetan ezin da banandu sentiberatasunetik, hemen definitu den gisan. Nolanahi ere, badira teknika proiektiboen fidagarritasuna egiaztatzeko beste modu batzuk.

- Test proiektiboen Fidagarritasuna aztertzeko erabiltzen diren metodoak bi dira, Anzieu-ren (1981) arabera:
 - **Interpretazio itsua**: hainbat adituri subjektuari buruzko oinarrizko informazioa ematen zaie bakarrik (pertsonearen adina, generoa eta ezer gehiagorik ez), eta test proiektiboaren protokoloa. Diagnostikoa egitean, adituek lortu duten adostasuna testaren fidagarritasun-mailaren adierazletzat jotzen da.
 - **Matching edo parekatzea**. Aurrekoaren aldaera bat da, non aditu bakoitzari subjektuari buruzko informazioa (adina, generoa, kontsultaren arrazoia eta beste informazio klinikoa) ematen baitzaio, alde batetik, eta test proiektiboaren protokoloa eta diagnostikoa, bestetik. Protokoloa eta informazioaren parekatze egokia testaren fidagarritasun-mailaren adierazletzat jotzen dira.

▲ Baliozkotasunaren definizio klasikoa mantentzen da, teknika proiektiboei dagokienez. Teknika proiektiboen baliozkotasuna aztertzeko hiru dira erabiltzen diren metodoak:

- Kanpoko irizpide batekin dagoen korrelazioa aztertu, beste iturri batzuetatik datorren informazioaz baliatuz.
- Barruko korrelazio estatistikoekin: azterketa faktoriala, alegia.
- Iragartze-ahalmena.

Hautzaroan eta nerabezaroan nortasunaren ebaluazioa egiteko erabiltzen diren teknika proiektibo batzuk

Gero, hautzaroan eta nerabezaroan nortasunaren ebaluazioa egiteko erabiltzen diren teknika proiektibo batzuk aurkeztuko ditugu. Tresna honen ezaugarrien laburpena ondorengo taulan ikus dezakezue.

TRESNA-URTEA-EGILEAK	APLIKAZIO-ADINA	TRESNAREN EGITURA	EBALUATZEN DU	ABANTAILAK-DESABANTAILAK
CAT Children Aperception Test (L. eta S. Bellak, 1949)	3-10 urte	10 lamina, animalien irudiez osatuak.	Identifikazioak, gatazkak, defentsamekanismoak, heldutasun afektiboaren maila eta supernariaren garapena	
PN Patte Noire (L. Corman, 1982-1983)		⇒ Hanka Beltzaren abenturak kontatzen dira 20 laminatan. ⇒ Haurrak aukeratzeko dituzten lamina batzuk istorioak kontatzeko. ⇒ Gero, bi multzotan banatzen dituzte maitatuak / ez maitatuak ⇒ Galdetzen zaio lamina bakoitzean zein izan nahi duen	⇒ Edipo konplexua eta haren ondorio patologikoak ⇒ Aita eta amaren irudien azterketa ⇒ Dependentsia-independentsia gatazkaren aurreko jarrera ⇒ Anai-arreben arteko lehia, eta abar	Luzea pasatzeko eta zuzentzeko
DUSS-EN IPUINAK Louise Duss, 1940	3-12	10 istorio kontatzen zaizkio haurri eta berak bukaera eman behar du: <ul style="list-style-type: none"> ▶ Txoriaren ipuina ▶ Gurasoen Ezkontzaurrena ▶ Bildotsarena ▶ Lur ematea - Bidaia ▶ Elefantearena ▶ Beldurrarena ▶ Egindako objektuarena ▶ Paseoarena ▶ Berriarena ▶ Amets gaiztoarena 	Garapen estadioko konplexuak ote dauden. Ipuin bakoitzak arlo gatazkatsu bati dagokio: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Dependentsia-independentsia ⇒ Jeloskortasuna ⇒ Titia kentzea eta anaien arteko leia ⇒ Agresibitatea, errukitasuna ⇒ Kastrazio konplexua ⇒ Angustia eta autopunizioa ⇒ Uzki konplexua ⇒ Edipo konplexua ⇒ Desioak edo/eta beldurrak ⇒ Beste ipuinen kontrola 	Heldu batzuekin erabil daiteke, haurrentzako ipuinak asmatu behar dituela esanez.
Picture-Frustration Reaction Study Rosenzweig, 1948	12 urte arte	Egoera frustragarriak agertzen dira komiki bezalako irudietan.	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Agresibitatearen norabidea: <ul style="list-style-type: none"> • extra-punitiboa • intra-punitiboa • ez punitiboa ▶ Erreakzio mota: <ul style="list-style-type: none"> ▶ Zeri ematen dion garrantzia subjektuak 	Probaren azterketa objektiboa da Nortasunaren arlo bati dagokio, ez nortasun dinamika osoari
HFD Human Figure Drawing Karen Machover, 1949		<ul style="list-style-type: none"> ▶ Alde ezberbala: Bi pertsonak marraztea eskatzen zaio haurri. ▶ Alde berbala: Galdesorta bat marrazki bakoitzari buruz 	Kategori batzuen arabera ebaluatzen da: <ul style="list-style-type: none"> ▶ Azterketa formala. <ul style="list-style-type: none"> Marrazkiaren tamaina Orriaren barruko kokapena Trazua, e.ab. ▶ Edukiaren azterk.: <ul style="list-style-type: none"> Gaia Pertsonaiaren jarrera Gorputz atalen zehaztasuna 	Haurrei asko gustatzen zaie.
Sendiaren Marrazkia L. Corman		Orri txuri bat ematen zaio haurri, eta konsigna bat: Marraz ezazu famili bat. Marrazkia bukatu eta gero, galdera batzuk egiten zaizkio.	Hiru plano: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Plano grafikoa: <ul style="list-style-type: none"> -Marren indarra -Marrazkiaren kokapena -Tamaina... ⇒ Egitura Formalen Planoa: <ul style="list-style-type: none"> -Gorputzak -Arropa eta detaileak ⇒ Edukiaren plano: <ul style="list-style-type: none"> -Bere benetako errealitatearekin konparatuz: Zein dago, nor ez dago, pertsonaiei ematen zaion garrantzia... 	Haurrei asko gustatzen zaie. Interpretazio egokia egitea ez da erresa.
FTT Carina Coulacoglou 1995	7-12	21 marrazki 7 serietan bilduta eta bakoitzak hiru marrazki dauzkala. Testa 45 minutuetan pasatzen da.	Hogei dimentsio ebaluatzen dira: <ul style="list-style-type: none"> ⇒ Anibalentzia ⇒ Gauzak edukitzeko desioa ⇒ Nagusitza desioa ⇒ Jabetasunaren Zentzua ⇒ Agresioa (4 mota) ⇒ Agresibitatearen beldurra . . 	Kuantitatibo eta kualitatiboki ebaluatzen da. Tipifikazio lagina badago (populazio grekoarekin), nahiz eta baremoak oraindik urriak izan. Adibide asko badator manualean Oraindik ez da asko erabili.

◆ *Children Apperception Test (C.A.T.)* edo *Haurrentzako apertzepzio-testa* (L. eta S. Bellak, 1949).

Test hau, TAT testaren ereduari jarraituz, haurrentzako test apertzeptibo bat da. 3 urtetik 10 urtera bitartean erabiltzen da. 10 lamina aurkezten zaizkio subjektuari, animalien irudiz osatuak. Haurrek istorio bat kontatu behar dute laminaren edukiaren inguruan. Istorioak aztertuz informazio lortzen da subjektuaren identifikazioei, gatazkei, defentsa-mekanismoei, heldutasun afektiboaren mailari eta superniaren garapenari buruz.

◆ *Patte Noire (P.N)* edo *Hanka Beltza* (L. Corman, 1979, 1981-1983).

Hanka batean orban beltz bat daukan txerrikume baten abenturak (Hanka Beltzaren abenturak) kontatzen dira 20 laminatan. Haurrak aukeratzen ditu lamina guztien artean batzuk, istorioak kontatzeko. Gero, bi multzoetan banatzen ditu: maitatuak / ez maitatuak. Haurrari galdetzen zaio lamina bakoitzean zein izan nahi duen.

Test honek haurraren dinamika psikikoaren hainbat arlori buruzko informazioa lortzen du: Edipo konplexua eta haren ondorio patologikoak; aitaren eta amaren irudien azterketa; dependentzia-independentzia gatazkaren aurreko jarrera, neba-arreben arteko lehia, eta abar.

Test interesgarria da, baina luzea da pasatzeko eta zuzentzeko.

◆ *Duss-en ipuinak* (Louise Duss, 1940; 1997).

Hamar istorio kontatzen zaizkio haurrari, istorio bakoitzari berak bukaera ipin diezaion. Garapen-estadio bakoitzean konplexuak ote dauden ikusteko egina dago test hau. Ipuin bakoitza arlo gatazkatsu bati dagokio:

Txoriaren ipuina erabiltzen da dependentzia-independentzia ebaluatzeko; gurasoen ezkontzaren urteurrenaren ipuina, jeloskortasuna aztertzeke; bildotsarena, titia kentzea eta neba-arreben arteko lehia aztertzeke; lur ematearena edo bidaiarena, erasokortasuna edo errukitasuna ikusteko; elefantearena, zikiratu-konplexua balioztatzeko; beldurrarena, angustia eta autopunizioerik ote dagoen ikusteko; egindako objektuarena, uzki-konplexua ebaluatzeko; ibilaldiarena, Edipo konplexua aztertzeke; berriarena, haurraren desirak edo/eta beldurrak agertzeke; eta, azkenik, amesgaiztoarena, beste ipuinen kontrola egiteko, haurraren beldur edo konplexuen laburpen gisa.

3 urtetik 12 urtera bitartean erabiltzeko diseinatuta dago, baina, egileak dioenez, heldu edo nerabe batzuekin erabil daiteke, haurrentzako ipuinak asmatu behar dituztela esanez.

◆ *Picture-Frustration Reaction Study* edo *Frustrazioaren aurreko erreakzioa aztertzeke marrazkiak* (Rozenzweig, 1948; 1972).

12 urte arte erabiltzeko egina dago test hau. Nerabe eta helduentzako beste bertsio bat badago.

Egoera frustragarriak agertzen dira komiki tankerako irudietan. Subjektuaren erantzunaren arabera, erasokortasunaren norabidea ebaluatzen da test honen bidez: estra-punitiboa (edo kanpora zuzendutako erasokortasuna), intra-punitiboa (edo barrura zuzendutakoa), eta ez-punitiboa (edo erasokortasunik gabekoa).

Subjektuaren erreakzio mota ere aztertzen da, eta zeri ematen dion garrantzia subjektuak erantzutean.

◆ **Human Figure Drawing (HFD)** edo **Giza irudiaren marrazkia** (Karen Machover, 1949).

Test horrek bi alde ditu: hitzezko alde bat, non bi pertsonak marrazteko eskatzen baitzaio haurrari, eta hitzezko aldea, laukiko marrazki bakoitzari buruzko galdesorta bat dakarrena. Marrazkiaren azterketa formala egiten da (marrazkiaren tamaina, orriaren barruko kokapena, trazua, eta abar), eta baita ere edukiaren azterketa bat (marrazkiaren gaia, marraztu den pertsonaiaren jarrera, gorputz atalen marrazkiaren zehaztasuna).

Machover-en testeko galdesorta

1. Asmatu pertsona honen istorioa, ipuin bat balitz bezala.

Erantzun galdera hauei:

2. Zer egiten du?
3. Zer adin du?
4. Ezkonduta al dago?
5. Ba al dauka seme-alabarik? Neskak ala mutilak?
6. Non egiten du lana?
12. Zein da bere gorputzeko parterik politena?
14. Zoriontsua al da?
18. Bere ohitura txarrenak dira...
23. Eskola gustatzen al zaio?
26. Ezkondu nahi al du?
29. Zein dira haren hiru gurariak?
31. Hura bezalakoa izan nahi al zenuke?

◆ *Familiaren marrazkia* (L. Corman).

Test hau egiteko, orri zuri bat ematen zaio haurrari, eta konsigna bat: marraz ezazu familia bat.

Marrazkia bukatu eta gero, galdera batzuk egiten zaizkio haurrari (familia horretan zein da zoriontsuena, zein zorigaiztokoena, zein gustatuko litzaizuke zuri izatea...).

Zuzentzerakoan eta interpretatzerakoan, hiru plano hartzen dira kontuan:

- ▶ Plano grafikoa:
 - marren indarra,
 - marrazkiaren kokapena,
 - tamaina...
- ▶ Egitura formalen planoak:
 - gorputzak,
 - arropa eta detaileak.
- ▶ Edukiaren planoak:
 - Haurraren benetako familiarekin konparatuz egiten da azterketa.
 - Nor dago, nor ez dago, pertsonaiei ematen zaion garrantzia, eta abar...

Test hau haurrei asko gustatzen zaie. Interpretazio egokia egitea ez da erraza, baina Cormanen liburuan azalpen zehatzak eta adibide ugari ematen dira.

◆ *Fairy Tales Test* (FTT) edo *Ipuin miresgarrien testa* (Carina Coulacoglou, 1995).

7 urtetik 12 urtera bitartean erabiltzeko testa da. Testa 21 marrazkiz osatuta dago, 7 serietan bilduak eta bakoitzak hiru marrazki dauzkala. Lehengo bost serieek pertsonaiak adierazten dituzte, betiko ipuinetan agertzen diren pertsonaiak (Edurne Zuri, ipotxak, sorginak, otxoa...) eta pertsonaia bakoitza hiru iruditan agertzen da. Azkeneko biek, aldiz, egoerak jasotzen dituzte. Testa pasatzeko 45 minutu behar dira.

Hogei dimentsio ebaluatzen dira:

- anbibalentzia,
- gauzak edukitzeko desira,
- nagusitzaren desira,
- jabetzaren zentzua,
- eraso (4 mota),
- erasokortasunaren beldurra.

Testa modu kuantitatibo eta kualitatiboan ebaluatzen da.

Tipifikazio-lagina egon badago (populazio grekoarekin), nahiz eta baremoak oraindik urriak izan. Adibide asko ageri dira eskuliburuan, baina esan behar dugu oraindik ez dela asko erabili eta lagina urria dela.

Laukian, VII serieari dagokion adibidea ikus dezakegu.

VII. SERIEA: Eburne Zuri eta ipotxen ipuinetik hartutako egoera

- ♦ Gizon-emakume harremana
- ♦ Aita-haur harremana
- ♦ Bakarrik utzia izateko beldurra (printzea hil daiteke; aita zaharra da; printzea Eburne Zuri abandona dezake...)
- ♦ Autonomiaren (ezkontzearen) ala besteen esanetara jartzearen arteko lehia (aitak ezkontzea debekatzen dio)
- ♦ Heldu bihurtzearen eta ume izaten jarraitzearen arteko lehia (ezkondu edo ipotxekin bizitzen jarraitu).